# Albiste eta informazio interesgarriak

## EHPM-REN MANIFESTAZIOA MAIATZAREN 7AN, GASTEIZEN, LEGEBILTZARREAN ESKATUTAKO AGERRALDIAK ERANTZUNIK GABE GERA EZ DAITEZEN

Martxoaren 30ean, Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimenduak (EHPM), Gasteizko kaleetan zehar manifestatu ondoren, prentsaurrekoa egin zuen Legebiltzarreko atarian, Erakunde honek duela hilabete batzuk EHPMk aurkeztutako hiru parlamentu-batzordeetan agerraldiak egiteko eskaeren aurrean agertu duen jarrera lotsagarria gaitzesteko. Halaber, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako pentsiodunen mugimenduak, agerraldiok gehiago atzeratu ez daitezen, maiatzaren 7an Gasteizen egingo duen mobilizazioa iragarri zuen.

Prentsaurrekoan EHPMren komunikatua azaldu eta banatu egin zitzaien kazetariei. Zenbait hedabidek horren berri eman zuten, baina bertan esaten denak duen interesa kontuan izanda, jarraian transkribatu egiten dugu.

*“Sei hilabete igaro dira EAJk, PSEk eta VOXek betoa jarri zutenetik Eusko Legebiltzarrean gure Herri Ekimen Legegilea borrokatzeko, gutxieneko pentsioak lanbide arteko gutxieneko soldatarekin parekatzeko eta, horrela, gizon eta emakume pentsiodunen arteko genero arrakala murrizteko, %30etik gorakoa baita.*

*EAEko Gobernuak eta hura babesten duten talde parlamentarioek gutxietsi egin zituzten bildutako 145.000 sinadurak eta sindikatu guztien eta ehunka erakunde sozial eta feministaren babesa, Konstituzioan eta Autonomia Estatutuan aitortutako ekimen legegileak gizarte zibilak zuzenean parte hartzeko duen eskubide demokratikoa ezerezean utziz.*

*Emakumeei bereziki eragiten dieten eta duintasunez bizitzeko aukerarik ematen ez duten gutxieneko pentsioak igotzeko borrokan jarraitzeko dugun konpromisoari leial, urrian erregistratu genuen Gobernantza Publikoaren Batzordean agertzeko eskaera, kalitate demokratikoa barne hartzen duena, Ekonomia Batzordean, politika ekonomikoak barne hartzen dituena, eta genero berdintasuneko politikak eztabaidatzen dituen Berdintasun Batzordean.*

*Gobernantzako Batzordean proposamenak egin nahi ditugu ekimen-legegilea arautzen dituen legea aldatzeko, azaldu nahi dugu justifikaezina iruditzen zaigula onartu eta hamar urtera oraindik legez aurreikusitako araudia garatu ez izana, eskubide hori baliatzea erabaki dugunontzat ondorio negatiboekin, eta onartezina iruditzen zaigula urtebeteko lanaren ondoren, ekimena ezagutarazteko eta eskatutako laguntzak jasotzeko, gure proposamena Eusko Legebiltzarrean eztabaidatzen ere utzi ez izana, eta hamar minutuko esku-hartzearekin eta talde parlamentarioen esku-hartzeei erantzuteko eskubiderik gabe.*




*Ekonomiari buruzko Batzordean, Eusko Jaurlaritzak doan egindako baieztapenari erantzun egin nahi diogu. Baieztapen horren arabera, gure HELk “arriskuan jarriko luke finantza publikoen iraunkortasuna”, gastu gehigarriak aurrekontuaren %1,4 gaindituko ez duela, kostu beherakorra izango lukeela eta komunitatera itzuliko*

*litzatekeela adierazten duten datuak aurkeztu genizkien arren, zergetan eta enpleguan eragin positiboa izango lukeelako, osagarria, ia osorik, premia biziko kontsumo-ondasunetara bideratuko litzatekeelako.*

*Berdintasunaren Batzordean, emakume pentsiodunen independentziarako eta nahikotasun ekonomikorako eskubidea defendatu nahi dugu, baita pentsiorik txikienak jasotzeak dakarren bidegabekeria ere, lanean diskriminatuak izan direlako eta zaintza-lanetan aritzera behartuta egon direlako, eta zeregin horiek ez direlako baloratu, ez ordaindu, ez eta erakundeek beren gain hartu ere.*

*Gure agerraldi-eskaerak onartzeko atzerapenak agerian uzten du Parlamentuak ere, beste zerbitzu publiko batzuek bezala, ez duela behar bezala funtzionatzen, eta publikoki iragartzen dugu **datorren maiatzaren 7an Gasteizen manifestazioa egingo dugula**, entzun gaitzazuen, gai publikoetan erabat parte hartzeko eta gutxieneko pentsioek eta gutxieneko soldatak pertsona guztiei behar bezala bizitzeko aukera emateko dugun eskubidea aldarrikatzeko, inflazioa eta bizi-maila lainoetan dauden autonomia erkidego honetan.*

*Eskari hori inoiz baino premiazkoagoa eta beharrezkoagoa da, gerrekin negozioa egiten dutenek eta prezioak handituz espekulatzen dutenek gero eta adineko pentsiodun gehiago miserian bizitzera kondenatzen dituztenean".*

## APIRILAREN 18AN: MOBILIZAZIOAK EAE-N KALITATEZKO OSASUN PUBLIKOAREN ALDE

Apirilaren 18an, OPA Herri Plataformak deituta, manifestazioak egingo dira Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) hiru hiriburuetan, Osakidetzaren narriadura larria salatzeko eta kalitatezko osasun arreta defendatzeko, murrizketarik eta pribatizaziorik gabe. Sindikatuen, auzo elkarteen, osasun arloko erakunde profesionalen, Euskal Herriko pentsiodunen mugimenduaren eta abarren babesa dute. Manifestazioak Bilbon (12:00etan, Jesusen Bihotzetik), Gasteizen (12:00etan, Bilbo plazatik) eta Donostian (17:00etan, Bulebarretik) abiatuko dira. Horietan, OPA Herri Plataformak honako hau adieraziko du:

. Sindikatuen eta hainbat alderdi politikoen eta gizarte erakunde ugariren adostasunik gabe egin zen Osasunaren Euskal Ituna deiturikoa sinatu zenetik zortzi hilabetera, sailburuak titular handiak eta promesa hutsak saltzen jarraitzen du, egiturazko arazoek konpondu gabe jarraitzen duten bitartean.

. Urtero murrizketak egiten dituzte bost hilabetez, "kontingentzia planez" mozorrotuta. Lehen mailako arreta eta osasun mentala dira zigortuenak. Lan baldintzek okerrera egiten dute: asistentzia gainkarga, %40tik gorako behin-behinekotasun handia eta partaidetza soziala eta profesionala mugatzen duen kudeaketa autoritarioa.

. Publikoa ahuldu egiten da negozio pribatua bultzatzeko. Aurten 500 milioi euro baino gehiago sektore pribatura joango dira. Horrek dakarrena da, hiru herritarretik batek mediku-aseguru pribatua izatea dagoeneko. Gardentasun falta kudeaketan, txertoen kasuan gertatu den moduan. Horren adibide dugu haurdunaldiaren borondatezko etenduren %95 osasun publikotik kanpo egiten jarraitzen dela, kontseilariaren konpromisoa eta estatuko lege bat bete gabe.

. LEPek ez dute benetako enplegurik sortzen. Porrot egiten dute estaldura zaileko lanpostuak betetzeko orduan. Eta sistemak gainezka egiten duenean, betiko errezeta erabiltzen dute: ordu extrak, plantilla indartu beharrean.



OPA Herri Plataformak pide a Lakua que «se deje de promesas» y «solucione» Osakidetza

. Osakidetza publikoa, unibertsala eta doakoa defendatzen dugu. Lehen Mailako Arreta osasungintzaren erdigunean jarriko duena. Hurbila, irisgarria eta gizatiarra. Gaixotasunaren prebentzioan oinarritua eta kausa sozialak kontuan izango dituena. Aurrez aurreko kontsultak nahi ditugu. Etenik gabeko asistentzia jarraitua, eta gutxienez 15 minutuko kontsultak paziente bakoitzeko. Behar besteko plantillak eta lan baldintza duinak. Profesionalen eta herritarren benetako parte-hartzea. Hizkuntza-eskubideak errespetatzea.

EHPMk OPA Herri Plataformaren salaketak eta aldarrikapenak babestu egiten ditugu. Eta nola ez, interesgarria iruditzen zaigu nabarmentzea neurri handi batean adinekoei eragiten dizkiguten eskaera espezifiko batzuk eskatzen direla. Adibidez, Osakidetzan benetako Geriatria zerbitzua egotea. Bularreko minbiziaren behaketa egiteko adina luzatzea, orain dagoen 69 urteko adin-mugatik gora. Prostatako minbizia aurreikusteko programa ezartzea. Ikusmenaren zerbitzua behar bezala estaltzea eta begi-lausoen eragiketetara soilik ez mugatzea. Aho-hortzen osasunaren jarraipen integrala egitea eta erauzketetara soilik ez mugatzea. Audifonoen kostua estaltzea...

Edozein herritarrentzat behar horien zati handi bat ordaindu behar izatea kostu handia bada, zer esanik ez pentsio txikiak edo miseriazkoak dituzten adinekoentzat. Eta osasun sistema publikoak estali beharko lituzken zerbitzuak dira.

## GUTXIENEKO PENTSIOEN OSAGARRIA NAFARROAN

Nafarroako Foru Ogasunak dagoeneko argitaratu du 2025-2026ko Errenta aitorpenaren egutegia (2025eko ekitaldi fiskalari dagokiona). Apirilaren 9an, ostegunez, hasi zen kanpaina, eta ekainaren 25ean, ostiralez, amaituko da.

Horregatik, Nafarroako Pentsiodunen Mugimenduak berriro ohartarazi nahi die gutxieneko pentsioa jasotzen duten eta osagarria jasotzeko eskubidea duten pertsona guztiei: kotizaziopeko pentsioa




dutenek (erretiroa, ezintasuna, alarguntasuna, ZBNA-SOVI), errenta aitorpena aurkeztu behar dutela gutxieneko pentsioen osagarria jasotzeko eskubidea izateko, kenkari fiskala egiteko, jasotako pentsioaren urteko zenbatekoaren eta Nafarroako Gobernuak 2025erako ezarritako kuota diferentzialaren arteko alde negatiboagatik, 1035 €x 14 ordainsari (14.490 €).

Errenta aitorpena funtsezko baldintza da Nafarroako Foru Ogasunak kudeatutako laguntza hori jasotzeko, mekanismo fiskal horren bidez kalkulatzen eta ordaintzen baita aurreikusitako zenbaterainoko aldea dagoen. Beraz, errenta aitorpena ez egiteak aurreko urtekoari dagokion eta aldi bakarrean kobratzen den osagarri hori jasotzeko aukera galtzea dakar.

Hala ere, kenkaria aldez aurretik ordaintzeko eskatu ahal izango zaio Gizarte Eskubideetako eskum ena duen sailari, dagokion urteko lehen hilabetetik kobratzen hasita, pentsio horretan gutxienekoetarako osagarria aitortuta duten edo lehengo Zahartzaroko eta Baliaezintasuneko Nahitaezko Asegurukoak (SOVI) diren alarguntasuneko pentsiodunek. Hala eskatu duten pertsona horiek, dagoeneko, hilean 1.100 euro x 14 ordainsari kobratzen ari dira (15.400 urtean), 2026rako ezarritako osagarriari dagokiona.

### Kotizazio gabeko pentsioen osagarria

Kotizazio gabeko (KGP) (erretiroko edo baliaezintasuneko) pentsio baten onuradunen kasuan, Nafarroako Gobernuak Errenta Bermatuaren (EB) bidez osatzen du 2026an KGParen zenbatekoaren (629 €x 14 = 8.807) eta familia-unitatearentzat finkatutako zenbatekoaren (810,83

€x 12 = 9.729,96 pertsona bakoitzeko) arteko aldea. Horretarako Nafarroan beharrezkoa da errenta aitorpena aurkeztea (edo, gutxienez, hori egiteko prest egotea edo dagokion diru sarreren eredua aurkeztea), pentsio ez-kontributiboen osagarria jasotzeko eskubidea izateko, bai eta pentsio ez-kontributiboa (KGP) mantentzeko ere.




Tasioren txokoa

## AEB-EN ETA IRANEN ARTEKO 15 EGUNEKO SU-ETEN AKORDIOA, BAINA GATAZKAK AURRERA JARRAITZEN DU

Astearte gauean 15 eguneko su-eten akordioa iragarri zuten AEBk eta Iranek. Baina horrek ez du bermatzen AEBen eta Israelen gerrarako duten gosea behin betiko geldiaraziko denik. Are gehiago, Israelek Libanoko erasoekin eta inbasioarekin jarraitzen du. Eraso horrek eragindako ondorio humanitario eta ekonomiko larriak bereziki izugarriak dira kaltetutako herrialdeentzat, baina beste herrialde askotako langile klasearentzat eta herritarrentzat ere gogorrak dira, mota guztietako erregaien eta erosketa saskia osatzen duten oinarrizko produktuen igoeraren ondorioz.



Estatu espainolean gobernu ezberdinak neurriak hartzen hasi direla diote, esaten dutenez, krisiari aurre egiteko. “Ezkutu sozialarekin” batera, zeina EHPMren ustez ez den nahikoa, lehenik Sanchezen Gobernua izan zen, erregaien, argiaren eta gasaren BEZ %21etik %10era jaitsiz eta hidrokarburoen gaineko zerga berezia kenduz. Eta euskal erakundeak? Eusko Jaurlaritzak berehala agindu zion 1.047 milioi euroko “babesa industriari”, krisi honetako kaltetu bakarra balitz bezala. Eta Foru Aldundiek zenbait neurri fiskal aurkeztu berri dituzte enpresei likidezia handiagoa emateko: zerga-zorrak atzeratuz, PFEZaren ordainketa zatikatuak salbuetsiz eta BEZaren itzulketa arinduz...

Sanchezen Gobernuak BEZ murrizteko onartutako neurriek 232 milioi euro murriztuko dizkiete foru kutxei, eta Aldundiek onartutakoek, 540 milioi. Batez ere enpresei zuzendutako neurriak dira, gizarte-premietarako diru-sarrera fiskalak gutxituz.

Krisi garaietan, enpresa guztiak ez dira kaltetuak ateratzen, batzuek krisiarekin negozioa egiten dute. Greenpeacek ikerketa bat argitaratu berri du, eta, bertan, martxoko lehen hiru asteetako erregaien prezioen batez bestekoa

urtarrileko eta otsaileko prezioekin alderatuz, ondorioztatu du Irango gatazka hasi zenetik EBko petrolio enpresek 81,4 milioi euro gehiago irabazi dituztela egunean. Eta kalkulatzen dute joan den martxoan EBko petrolio enpresen denen arteko irabaziak 2.500 milioi eurokoak direla, eta horrek adierazten du gasolindegietako prezioak petrolio gordinaren igoerari dagokiona baino askoz gehiago igo direla.

Ez lukete petrolio enpresa horiek gehiago ordaindu behar izango etekin horiengatik? Greenpeacek proposatu du erregai fosilen irabaziei zergak igotzea eta diru hori herritarren energia fakturak murrizteko erabiltzea, energia berriztagarri merkeak eta seguruak eskaintzea eta tokian tokiko ekoizpena sustatzea, gainera, proposatzen du krisi klimatikoak kaltetutako komunitateei laguntzea.

Ez da etekin handiak dituzten enpresei zergak igotzeko egiten den proposamen bakarra. Joan den astean, Espainiako, Alemaniako, Italiako, Austriako eta Portugalgo Ekonomia ministroek energia enpresen ezohiko mozkinen gaineko zerga berri bat sortzeko eskatu zioten Europako Batzordeari. Gogoratu behar da Estatu espainiarrean 2023an eta 2024an indarrean egon zela zegokion aldi baterako zerga energetikoa. Aldi baterako zerga hori energiaren ezohiko mozkinen gaineko zerga finko bihurtu nahian Sanchezen gobernuak egindako proposamena atzera bota zuten PPk, VOXk, JUNTSk, EAJk eta UPNk Kongresuan eman zuten kontrako bozkarekin.

Beharrezkoa da etekin gehien dutenek zerga gehiago ordaindu behar izatea. Eta diru-sarrera horiek pertsona zaurgarrienen aldeko politika publikoak bultzatzeko erabiltzea. Euskal erakundeek badute eskumena “ezkutu sozial” bat ezartzeko, Iranen aurka sortu den gerraren ondorio ekonomikoei aurre egin ahal izateko, eta herritarrek bizi baldintza duinetan bizi daitezen behar duten gutxieneko diru-sarrera eskaintzeko. Orain inoiz baino beharrezkoagoa da Eusko Jaurlaritzak eta Nafarroako Gobernuak gutxieneko pentsioak Lanbide arteko Gutxieneko Soldatarekin parekatzeko ekarpen osagarria egitea (LGS), eta 1.500 euroko LGS propioa lortzeko ahaleginak egitea. Krisi honi aurre egiteko eta aberastasunaren banaketan urratsak emateko neurririk onenak izango lirateke.

## KORRIKA-REN ARRAKASTA SOZIALAREN ONDOREN, EUSKARA DEFENDATZEN ETA BULTZATZEN JARRAITU BEHAR DA

M-29 igandean, KORRIKA 24ak bere ibilbidea amaitu zuen Bilbon. 11 egunez, gau eta egun gelditu gabe, Atharratzetik (Zuberoa) abiatuta, M19an, 2.175 kilometro egin zituen, hiriburu guztietatik eta Euskal Herri osoko 460 herri ingurutatik igaroz.

Milaka lagunek bat egin du “Euskara gara” leloarekin Korrika hiriburuetan eta herrietan sartzen izan denean lasterketara sartuz edo harrera eginez. Eta Bilbon egin zitzaion Euskal Herriko adin ezberdinetako eta lurralde guztietako harrera jendetsuarekin, KORRIKAren amaiera ezin hobea burutu zen, oso arrakastatsutzat jo daitekeena. Ekimen horrek euskararen aldeko herritarren adostasun zabala adierazten du, eta komunikabide guztiek onartu behar izan zuten, nahiz eta horietako batzuek AEKri, KORRIKAren sustatzaileari, kritikatzeko ere aprobetxatu zuten.

Orain guztiok dugun erronka: erakundeek, gizarte eragileek eta herritarrek oro har, gure eguneroko bizitzan euskara bultzatzen eta erabiltzen jarraitzea zentro publiko, lantegi eta gizarte harreman guztietan.




PROMESA GEHIAGORIK EZ!
KONPONBIDE ERREALAK ORAIN
¡BASTA DE PROMESAS! SOLUCIONES REALES YA
Indartu eta defendatu gure osasun publikoa
Defendamos la sanidad pública
Osakidetza
bla
bla
bla
bla
MANIFESTAZIOA
APIRILAK 18 ABRIL
BILBO
BIHOTZ SAKRATUAN
12:00etan
GASTEIZ
BILBO PLAZAN
12.00etan
DONOSTIA
BULEBARREAN
17:00etan
OSASUN PUBLIKOAREN ALDEKO HERRI PLATAFORMAK
PLATAFORMAS CIUDADANAS EN DEFENSA DE LA SANIDAD PÚBLICA
Osasun publikoa landu eta zaindu!!
Osasun Publikoaren Aldeko Herri Plataformak



11 abril de 2026

# Noticias e informaciones de interés

## MANIFESTACIÓN DEL MPEH EL 7 DE MAYO EN GASTEIZ PARA EXIGIR QUE EL PARLAMENTO NO NINGUNEE LAS COMPARECENCIAS SOLICITADAS

El 30 de marzo, el Movimiento de Pensionistas de Euskal Herria (MPEH), arropado por los compañeros y compañeras pensionistas de Gasteiz que se habían manifestado previamente por las calles de la localidad, dio una rueda de prensa ante las puertas del Parlamento para denunciar el ninguneo del Parlamento ante las solicitudes de comparecencias con tres comisiones parlamentarias, presentadas hace meses por el MPEH. Asimismo, se anunció la convocatoria de una movilización del movimiento de pensionistas de Araba, Bizkaia y Gipuzkoa para el **7 de mayo en Gasteiz** con el objetivo de exigir que no se dilate por más tiempo la celebración de esas comparecencias.

En la rueda de prensa se explicó y repartió a los medios de comunicación el comunicado del MPEH, del que se hicieron eco algunos medios, y que por su interés publicamos a continuación.

*"Han pasado seis meses ya desde que PNV, PSE-EE y VOX* ***vetaron*** *que se pudiera debatir en el parlamento vasco nuestra Iniciativa Legislativa Popular para equiparar las pensiones mínimas al salario mínimo interprofesional y reducir así la brecha de género entre hombres y mujeres pensionistas que es superior al 30%.*

*El Gobierno de la CAV y los grupos parlamentarios que lo apoyan despreciaron las 145.000 firmas recogidas y el respaldo de la totalidad de los sindicatos y de cientos de organizaciones sociales y feministas, convirtiendo el derecho democrático a la participación directa de la sociedad civil proponiendo iniciativas legislativas, reconocido en la Constitución y el Estatuto de Autonomía, en papel mojado.*

*Fieles a nuestro compromiso de seguir luchando para elevar las pensiones mínimas, que afectan especialmente a las mujeres y no permiten vivir dignamente,* ***registramos en octubre la solicitud de comparecencia*** *en la Comisión de Gobernanza Pública, que incluye la calidad democrática, en la Comisión de Economía, que comprende las políticas económicas, y en la Comisión de Igualdad que debate las políticas de igualdad de género.*

***En la de Gobernanza queremos hacer propuestas para cambiar la ley que regula las iniciativas legislativas****, exponer que nos parece injustificable que diez años después de aprobarse todavía no se haya desarrollado el reglamento previsto legalmente, con consecuencias negativas para quienes hemos decidido ejercer este derecho, y que nos parece impresentable que después de un año de trabajo, para dar a conocer la iniciativa y recabar los apoyos exigidos, no se nos haya permitido ni siquiera debatir en el parlamento vasco nuestra propuesta y se nos haya despachado con diez minutos de intervención y sin derecho siquiera a contestar las intervenciones de los grupos parlamentarios.*




***En la de Economía queremos rebatir la aseveración del Gobierno Vasco, hecha gratuitamente, de que nuestra ILP "pondría en riesgo la sostenibilidad de las finanzas públicas"*** *cuando les habíamos presentado datos de que el gasto adicional no superará el 1,4% del presupuesto, tendría un costo decreciente, y retornaría a la comunidad debido al impacto positivo en los impuestos y el empleo dado que el complemento se destinaría en su práctica totalidad a bienes de consumo de primera necesidad.*

***En la de Igualdad queremos defender el derecho a la independencia y suficiencia económica de las mujeres pensionistas** y la injusticia que supone que estén percibiendo las pensiones más bajas debido a que han sido discriminadas en el trabajo y visto obligadas a dedicarse a tareas de cuidados que ni han sido valoradas, ni retribuidas, ni asumidas institucionalmente.*

*El retraso en admitir nuestras solicitudes de comparecencia revela que tampoco el Parlamento vasco, como otros servicios públicos, funciona adecuadamente, y anunciamos públicamente que el próximo **7 de mayo nos manifestaremos en Vitoria-Gasteiz** a fin de reivindicar nuestro derecho a que se nos oiga, a participar plenamente en los asuntos públicos, y a que las pensiones mínimas y el salario mínimo permitan vivir decentemente a todas las personas en una comunidad autónoma donde la inflación y el nivel de vida están por las nubes.*

*Esta demanda es más urgente y necesaria que nunca, cuando los que hacen negocio con las guerras y especulan incrementando los precios condenan a cada vez más personas mayores pensionistas a vivir en la miseria".*

## 18 DE ABRIL: MOVILIZACIONES EN LA CAV EN DEFENSA DE UNA SANIDAD PÚBLICA Y DE CALIDAD

El 18 de abril, convocadas por la plataforma OPA Herri Plataformak (Plataformas ciudadanas en defensa de la sanidad pública), se llevarán a cabo manifestaciones en las tres capitales de la Comunidad Autónoma Vasca (CAV) para denunciar el grave deterioro de Osakidetza y defender una atención sanitaria de calidad, sin recortes ni privatizaciones. Cuentan con el apoyo de sindicatos, asociaciones vecinales, organizaciones profesionales de la salud, el movimiento de pensionistas de Euskal Herria... Las manifestaciones arrancarán en: Bilbao (12:00, Sagrado Corazón), Vitoria-Gasteiz (12:00, plaza Bilbao), Donostia (17:00, Boulevard). En ellas, OPA Herri Plataformak pondrá de manifiesto que:

. Ocho meses después del llamado Pacto Vasco de Salud, sin consenso y rechazado por sindicatos, partidos políticos y numerosas organizaciones sociales, el consejero sigue vendiendo grandes titulares y promesas vacías, mientras los problemas estructurales siguen sin resolverse.

. Cada año aplican recortes durante cinco meses, disfrazados de "planes de contingencia". La Atención Primaria y la Salud Mental son las más castigadas. Las condiciones laborales empeoran: sobrecarga asistencial, alta temporalidad superior al 40% y una gestión autoritaria que limita la participación social y profesional.




. Se debilita lo público para favorecer el negocio privado. Este año más de 500 millones de euros irán al sector privado. Uno de cada tres ciudadanos ya cuenta con seguro médico privado. Falta absoluta de transparencia en la gestión, como en el caso de las vacunas. Un ejemplo lo tenemos en que el 95% de las interrupciones voluntarias del embarazo continúan realizándose fuera de la sanidad pública, incumpliendo el compromiso del consejero y también una ley estatal.

. Las OPEs no crean empleo real, Fracasan al no lograr cubrir los puestos de difícil cobertura. Y cuando el sistema se desborda, recurren a la misma receta: más horas extras en lugar de reforzar plantillas.

. Defendemos una Osakidetza pública, universal y gratuita. Con la Atención Primaria en el centro. Cercana, accesible y humana. Basada en la prevención y en las causas sociales de la enfermedad. Queremos consultas presenciales. Continuidad asistencial y al menos 15 minutos por paciente. Plantillas suficientes y condiciones laborales dignas.

Participación real de profesionales y ciudadanía. Respeto a los derechos lingüísticos.

El MPEH apoyamos las denuncias y reivindicaciones de la plataforma OPA Herri Plataformak. Aun así, consideramos también de interés resaltar la exigencia de algunas demandas específicas que afectan en buena parte a las personas mayores. Por ejemplo, que en Osakidetza haya un verdadero servicio de Geriatría. Que se amplíe la edad para realizar el cribado de cáncer de mama, que tiene el límite de edad en los 69 años. Que se implemente el programa de previsión de cáncer de próstata. Que se cubran adecuadamente las revisiones de la vista y que no se limiten únicamente a las operaciones de cataratas. Que se haga un seguimiento integral de la salud bucodental y no se limite exclusivamente a las extracciones. Que se cubra el costo de los audífonos….

Si para cualquier ciudadano/a tener que abonar una buena parte de estas necesidades supone un costo muy elevado, resulta del todo imposible para personas mayores con bajas pensiones o de miseria. Y estas deben ser cubiertas por el sistema público de salud.

## COMPLEMENTO A PENSIONES MÍNIMAS EN NAVARRA

La Hacienda Foral de Navarra ha publicado ya su calendario de declaración la Renta 2025-2026 (correspondiente al ejercicio fiscal 2025). El jueves 9 de abril se inició la campaña y finalizará el viernes 25 de junio.

Por ese motivo el Movimiento de Pensionistas de Navarra quiere volver a advertir a todas las personas que perciben pensiones con derecho al complemento a mínimos: pensiones contributivas (jubilación, incapacidad, viudedad, sovi) que es necesario presentar la declaración de la renta para tener derecho al complemento de pensiones mínimas, para practicar una deducción fiscal por la diferencia negativa entre la cuantía anual de la pensión percibida y la cuota diferencial establecida por el Gobierno de Navarra, para el año 2025 en 1035€ x 14 pagas (14.490€).

La declaración de la renta es requisito clave para percibir esta ayuda gestionada por la Hacienda Foral de Navarra, ya que es a través de este mecanismo fiscal como se calcula y abona la diferencia hasta el importe previsto. Por lo tanto, no realizar la declaración de la renta conlleva la pérdida de la posibilidad de percibir este complemento que pertenece al año anterior y se cobra de una sola vez.



No obstante, podrán solicitar del departamento competente de Derechos Sociales el abono de la deducción de forma anticipada, con cobro mensual desde el primer mes del año correspondiente, las personas pensionistas de viudedad que tengan reconocido el complemento a mínimos en dicha pensión o bien que sean del antiguo Seguro Obligatorio de Vejez e Invalidez (SOVI). Estas personas que así lo hayan solicitado, ya están cobrando mes a mes, la cuantía de 1.100€ x 14 pagas (15.400 anuales) correspondiente al complemento fijado para el año 2026.

### Complemento a las pensiones no contributivas

En el caso de los beneficiarios de una Pensión (de jubilación o invalidez) No Contributiva (PNC), el Gobierno de Navarra a través de la Renta Garantizada (RG) complementa en el año 2026 con la diferencia entre la cuantía de la PNC 629€ x 14= 8.807 y el importe fijado para la unidad familiar 810,83€ x 12 = 9.729,96 por 1 persona. Es necesario presentar la declaración de la renta (o al menos estar en disposición de hacerlo o presentar el modelo correspondiente de ingresos) para tener derecho al complemento de pensiones no contributivas en Navarra, así como para mantener la propia pensión no contributiva (PNC).




## El rincón de Tasio

## ACUERDO DE ALTO EL FUEGO DE 15 DÍAS ENTRE EEUU E IRÁN, PERO EL CONFLICTO CONTINÚA

El martes a la noche se anunció el acuerdo de alto el fuego de 15 días entre EEUU e Irán. Pero esto no garantiza que la guerra de agresión de EEUU e Israel vaya a ser definitivamente paralizada. Es más, Israel continúa con sus ataques e invasión en Líbano. Las graves consecuencias humanitarias y económicas provocadas por esta agresión son especialmente brutales para los países afectados, pero las clases obreras y populares de otros muchos países también las estamos sufriendo con las subidas de todo tipo de carburantes y de los productos básicos que componen la cesta de la compra.

En el Estado español los diferentes gobiernos empezaron a tomar medidas, según dicen, para hacer frente a la crisis. Junto al “escudo social”, que el MPEH consideramos insuficiente, primero fue el Gobierno de Sánchez, bajando el IVA de carburantes, luz y gas del 21% al 10% o suprimiendo el impuesto



especial a los hidrocarburos. ¿Y las instituciones vascas? El Gobierno Vasco se apresuró a lanzar su “escudo a la industria” de 1.047 millones de euros, como si fuese la única perjudicada de esta crisis. Y las Diputaciones Forales acaban de presentar una serie de medidas fiscales para proveer de mayor liquidez a las empresas: aplazamiento de las deudas tributarias, la exoneración de los pagos fraccionados del IRPF, la agilización en la devolución del IVA…

Las medidas aprobadas por el Gobierno de Sánchez reduciendo el IVA van a restar 232 millones de euros a las arcas forales y las aprobadas por las Diputaciones, 540 millones. Son medidas dedicadas fundamentalmente a las empresas, reduciendo así los ingresos fiscales para necesidades sociales.

En épocas de crisis, no todas las empresas salen perjudicadas, hay quien hace negocio de las crisis. Greenpeace acaba de publicar un estudio en el que, comparando la media de precios de los combustibles en las tres primeras semanas de marzo con los precios de enero y febrero, concluyen que, desde el inicio del conflicto en Irán, las petroleras en la UE han ganado 81,4 millones de euros extra al día. Y calculan que los beneficios conjuntos de las petroleras en la UE en el pasado mes de marzo ascienden a 2.500 millones de euros, lo que indica que los precios en surtidor han subido mucho más que el aumento subyacente del precio del crudo.

¿No deben las petroleras pagar más por todos esos beneficios? Greenpeace propone subir los impuestos

a los beneficios de los combustibles fósiles y usar ese dinero para reducir las facturas energéticas de la población, despegar energías renovables baratas, seguras y de producción local, y apoyar a las comunidades afectadas por el agravamiento de la crisis climática.

No es la única propuesta de subida de impuestos a empresas con grandes beneficios. La semana pasada, los ministros de Economía de España, Alemania, Italia, Austria y Portugal solicitaron a la Comisión Europea la creación de un nuevo tributo coordinado sobre los beneficios extraordinarios de las empresas energéticas. Hay que recordar que en el Estado español estuvo vigente durante los años 2023 y 2024 el gravamen temporal energético. La propuesta del Gobierno Sánchez para convertir este gravamen temporal en un impuesto fijo a los beneficios extraordinarios de las energéticas fue rechazada en el Congreso por los votos contrarios de PP, Vox, Junts, PNV y UPN.

Es necesario que quienes tienen más beneficios paguen más impuestos. Y esos ingresos sean utilizados para impulsar políticas públicas en beneficio de las personas más vulnerables Las instituciones vascas tienen competencias para implementar un "escudo social" que garantice unos ingresos mínimos suficientes a todas las personas que les posibiliten hacer frente a las consecuencias económicas de la guerra contra Irán. Ahora más que nunca es necesario que los Gobiernos Vasco y el Navarro complementen las pensiones mínimas al Salario Mínimo Interprofesional (SMI), y que impulsen la consecución de un SMI propio de 1.500 euros. Serían las mejores medidas para hacer frente a esta crisis y para avanzar en el reparto de la riqueza.

## TRAS EL ÉXITO SOCIAL DE LA KORRIKA CONTINUAR DEFENDIENDO E IMPULSANDO EL EUSKERA

El domingo 29-M, la KORRIKA 24 culminó su andadura en Bilbao. Durante 11 días, día y noche sin parar, partiendo de Atharratze (Zuberoa) el 19-M, recorrió 2.175 kilómetros, pasando por todas las capitales y unas 460 localidades del conjunto de Euskal Herria.

Participando en la carrera y en los recibimientos en las capitales y pueblos, fueron cientos de miles de personas las que hicieron suyo el eslogan "Euskara gara". Y el recibimiento final en Bilbao, con una acogida multitudinaria de gentes de todas las edades y territorios de Euskal Herria, fue el broche final de oro a una KORRIKA que solo puede calificarse de muy exitosa. Iniciativa que expresa un amplio consenso popular y ciudadano vasco en apoyo al euskera, que todos los medios de comunicación lo tuvieron que reconocer, aunque algunos de ellos se han venido haciendo eco de algunas críticas interesadas a AEK, promotora de la KORRIKA.

El reto que ahora tenemos todos y todas: instituciones, agentes sociales y la ciudadanía en general es continuar impulsando y haciendo uso del euskera en nuestra vida cotidiana en todos los centros públicos, de trabajo y en nuestras relaciones sociales.

